



2006

Kontratazio Publiko Elektronikoaren Ereduaren urteko memoriaren laburpena

Kontratazio Publiko Elektronikoaren Ereduko Idazkaritza Teknikoa. Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
Eusko Jaurlaritza.

(2007ko otsailak 2)

Eusko Jaurlaritzako Administrazio eta Gobernu Elektronikoaren Plan Estrategikoaren barruko proiektua.



Kontratazio publiko elektronikoa
Contratación pública electrónica



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA



2006ko ahalegin handia

Kontratazio elektronikoen baliabideak behar bezala eta orokorrean ezarri ahal izateko, Eusko Jaurlaritzak Kontratazio Publiko Elektronikoaaren Eredua sustatzeko ahalegin handia egin du 2006an zehar.

Nahiz eta kontratazio elektronikoa onurak begi bistakoak izan, Informazio eta Administrazio Digitaleko Gizartea poliki aurreratzen ari dela kontziente, Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jo du enpresa lizitatzailerik laguntzea, batik bat, gaur egun kontratisten erregistro ofizialean izena emana duten 3.200 enpresei.

Horrelako edozein aldaketari atxikitako zailtasunei honako hau gehitu behar zaie: **Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoaaren Ereduak** kontratazio elektronikoa INTEGRALA garatzen du, txostenetan prozesu OSOA -barne-izapideak (baita Interneten lizitazio-iragarkiak eta dokumentu osagarriak eta eskaintzen irekieradatak argitaratzea ere) eta kanpo-izapideak (adibidez, lizitatzailerik eskaintzak aurkeztea, haien jakinarazpenak jasotzea eta kontratua bera sinatzea)- bide telematikoen bidez egiten baita.

Urrats garrantzitsu guztiak bermatuta daude, sinadura elektronikoa onartuko egiaztagiririk erabili behar baitira. Kontuan izan behar da eskaintza telematikoa kontratazio-mahai bakoitzeko kideen sinadura elektronikoa onartuko egiaztagirien aurka kodetzen direla, eta horrenbestez, eskaintzak irekitzeko mahaiaren sinadura elektronikoko txartelen bidez quoruma egiten duen kide-kopuruak soilik emango du eskaintzak jakiteko aukera.

Segurtasun-berme horiei honako hau gehitu behar zaie: alde batetik, txostenak EZ direla kontratu txikiak (izapide laburtua dutenak), kontratazio irekiak, murriztuak edo

negoziatuak baizik, eta beste batetik, legeak hala agintzen duelako, kontratazio espedienteek eskaintzak ohiko moduan -hots, paper-formatuan- egiteko aukera ere eman behar dutela. Hori guztia aintzat hartuta, ulertuko dugu oso erronka handiari egin behar diogula aurre.

Gure ahalegina ez da txikia izan, 2006an zehar egindako jardueren memoria honetan ikus daitekeenez.

Ahalegin horiek jarraituz, bilakaera teknologikoko lanekin jarraituko dugu 2007ko ekitaldian. Horrenbestez, prestazio berriak garatu eta Plataforma Teknologikoa E-Administrazioarako duen potentziala sartuko dugu; izan ere, hori da Eusko Jaurlaritzaren Administrazio eta Gobernu Elektronikoen Plan Estrategikoaaren garapen-xedea.

Halaber, areagotuko ditugu ahaleginak marketingean, hedapenean eta prestakuntzan; izan ere, kontratazio elektronikoko 100 espedientetik gora eskeiniko ditugu.

2007rako, helburu erraza daukagu: lizitazio elektronikoa erabilera behin betiko zabaltzea, izan ere, Kontratazio administratiboko 18/2004/EE erkidegoaren zuzentarauak eta Sektore Publikoko Kontratuen legearen proiektuak guztiz elektronikoa diren kontratazio-mota berriak direla-eta, enpresak horretara ohitu daitezela komeni da.

Jaime Dominguez-Macaya
Ondare eta Kontratazio Zuzendaria
Ogasun eta Herri Administrazio Saila
Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoaren Eredua

Prozedura OSOA bide telematikoen bidez egin daiteke:

- Euskal Administrazioari dagokionez: Interneten lizitazio-iragarkiak eta dokumentu osagarriak argitaratzea, jakinarazpenak bidaltzea, eskaintzak irekitzea...
- Enpresei dagokienez: Lizitatuzaileek eskaintzak aurkeztea, jakinarazpenak jasotzea, kontratuak sinatzea...

Sinadura elektroniko onartuko egiaztagiriek urrats garrantzitsu guztiak bermatzen dituzte:

- Bidalitako eskaintzak transferitzea eta kodetzea.
- Mahaiko kideen quorumaren bidez eskaintzak irekitzea eta deskodetzea.

Txosten irekiak, murriztuak eta negoziatuak



01. Elementu dokumentalak

2006. urtean zehar, katalogoak argitaratzeko lan handia egin da, kontratazio elektronikoa abiaraztearekin lotutako alderdi teknikoak eta administratiboak argitze aldera.

13 katalogo
2 eskuliburu
"Prest" Kontratazio Publiko
Elektronikoaren
Aldizkariaren 4 ale



www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa

02. Internet

Kontratazio Publiko Elektronikoaren Ereduaren web presentzia garatzeari begira, honako ekintza hauek egin dira:

- Contratacion.info (Kontratazio Publiko Elektronikoaren Ereduaren web orria) eguneratzea.

- Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialaren web presentzia garatzea.

- Enpresen Sailkapenerako Zerbitzuaren web presentzia garatzea.

- Contratacion.info web orriaren ingelesezko bertsioa abiaraztea.

03. Hedapen Jardunaldiak

16 hedapen-
jardunaldi:
863 pertsona,
701 enpresa



- Kontratazio Publiko Elektronikoaren Eredua informatikako, telekomunikazioetako eta aholkularitzako enpresei aurkeztea.
- Kontratisten Erregistro Ofizialean erregistratutako 3.200 enpresa baino gehiagori aurkezpen handiak egitea.
- Kontratazio Publiko Elektronikoaren Eredua Bartzelonan hedatzeko jardunaldia.
- Madrilgo "Kontratazio Elektronikoari buruzko Jardunaldia" delakoan parte hartzea.
- Tecnimap 2006 azokan parte hartzea.

Zuzeneko prestakuntza eta Internet bidezko on line prestakuntza, enpresa lizitzaileentzat

Zuzeneko prestakuntzako 34 ikastaro: 395 lagun, 220 enpresa

Zuzeneko ikastaroak administrazioko erabiltzaileentzat. Prestakuntza-ikastaroak kontratazio-technikarientzat; izan ere, haiek arduratu behar dute, sail bakoitzean, kontratazio elektronikoko sistemaren bidez eskaintzen diren espedienteak kudeatzeaz.

Barne-prestakuntza: 101 pertsona. 11 sail. 5 erakunde autonomo

04. Prestakuntza

3 orduko ikastaro trinkoak eman dira Bilbon, Donostian eta Gasteizen. Haiei esker, kontratazio elektronikoa bertatik bertara eta osorik ezagutzeko aukera dute enpresek.



Kontratazio-prozesuaren hartzaileak:

- Idazkariak, mahaiko presidenteak eta kontratazio-technikariak
- Kontratazio-unitateetako administrari laguntzaileak eta administrariak
- Informatika-technikariak
- Kontratazio-organoak

Prestakuntza jasotako langileak dituzten sailak:

- Ogasun eta Herri Administrazio Saila: 47
- Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila: 4
- Barne Saila: 6
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila: 4
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila: 4
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila: 1
- Osasun Saila: 7
- Kultura Saila: 2
- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila: 8
- Garraio eta Herri Lan Saila: 2
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila: 4

Erakunde autonomoei eta zuzenbide pribatuko ente publikoei emandako prestakuntza:

- HAAE / IVAP - Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea
- Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia
- EUSTAT - Euskal Estatistika Erakundea
- EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea
- OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Ikastaroetan parte hartutakoei egindako inkestetan, batez besteko gogobetetasun-maila 7,82 izan da



05. Alerta goiztiarra

Enpresei behar besteko aurrerapenez (batez beste, kontratazio-bostena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta 30-45 egunera) jakinaren gainean jartzeko sistema da. Horren bidez, enpresek lizitazio elektronikoak eskatzen dituen baldintza teknikoak eta administratiboak berri izan dezakete, bai eta haiek kontratazio elektroniko sistema ezagutu, trebatu eta jardun ere. 2006. urtearen hasieran, "Alerta Goiztiarra" jarri zen marbxan, elektronikoki eskaini daitezkeen espedientei buruzko jakinarazpenak egiteko.

Alerta Goiztiarra hedatzeko bideak:

- www.contratacion.info • www.euskadi.net/kontratazioa

Alerta Goiztiarra albisteen bidez argitaratzen da, Kontratazio Publiko Elektronikoaren Ereduaren web gureko berritasunen atalean.

- **Posta elektronikoa**

Idazkaritza Teknikoak bidaliko die Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatutako enpresei eta sail bakoitzean historikoki eskaintzak egin dituzten enpresei.

- Lehiaketei buruzko informazioa bidaltzen **espezializatutako enpresei** ere bidaltzen zaie.



06. Kontratazio Publiko Elektronikoaren Erabiltzaileen Arreta Zentroa

Kontratazio Publiko Elektronikoaren Erabiltzaileen Arreta Zentroak honako hau eskaintzen du:

- Enpresa bakoitzean kontratazio elektronikoaz arduratuko diren pertsonekin zuzeneko harremana izateko gune zentrala.
- Aplikazioak erabiltzeko eta sor daitezkeen arazoak konpontzeko laguntza.

Horrez gain:

"Urrutiko Laguntza" (WebControl) Internet bidez.

Internet bidez ematen den laguntza da. Telefonoz, berriz, laguntza-teknikariak laguntzen diete erabiltzaileei. Erabiltzaile batek Laguntza Zentroaren laguntza-proposamena onartzen badu, hura eta laguntza-teknikariak Interneteko helbide batzuekin konektatuko dira, eta horri esker, teknikariak enpresako ordenagailuaren pantailan une oro agertzen dena aldi berean ikusteko aukera izango dute.

Enpresako erabiltzaileak eta laguntza-teknikariak eskaintza elektronikoki dagozkion eragiketak egin eta denak zuzen funtzionatzen duela egiaztatzeko aukera izaten dute



Eusko
Jaurlaritzaren
eredua, Kontratazio
Elektroniko
INTEGRALA
garatzeko


07. 2006an zehar abiarazitako Kontratazio Elektronikoko txostenak

12 erakundek (Gobernuko sailek, erakunde autonomoek eta ente publikoek) kontratazio elektronikoko 29 espediente abiarazi zituzten

Haien %65ek eskaintza digitalak jaso zituzten

Eskaintza telematikoen kopurua %30 izan zen

Guztira, 50 milioi euro kontratatu ziren



2007ko urtarrilaz geroztik, Eusko Jaurlaritzako sail guztiak eta erakunde autonomo eta ente publiko asko gehienak espedienteak kontratazio elektronikoaren bitartez abiarazteko moduan izango dira

Lizitazio elektronikoaren bidez kontratatutako ondasunak eta zerbitzuak askotarikoak dira, gero eta askotarikoagoak, esate baterako:
Aholkularitza-zerbitzuak, kontu-ikuskaritzako zerbitzuak, aseguruak, bulegoko altzariak, segurtasun-sistemak, euskarazko eta gaztelaniazko testuak itzultzeko zerbitzuak, publizitatea, garbiketa-zerbitzuak, bidaiak antolatzeko zerbitzuak, poliziaren ikastegirako soroslea,

- Gobernu Kontseiluaren hitzarmen-proposamena, Kontratazio Proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta Instituzionalean ezartzeko Plan Zuzentzailea onesteko.
- Karatulak baldintza orri tekniko eta administratibo estandarren garapena.

08. Lege- eta arau-garapeneko ekintzak



09. Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistemako aplikazioen bilakaera teknologikoa

- Gobernu Kontseiluak Kontratazio Proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta Instituzionalean ezartzeko Plan Zuzentzailea onesteko hartutako akordioaren ondoriozko garapen informatikoak.
- Funtzionaltasun berriak garatzeko eta E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa erabiltzeko espezifikazio eta kontratazioa.
- Aholkularitza-lanak, elektronikoak soilik diren kontratazio-motak ezartzeko beharrezkoak diren garapenak zehazteko.
- Bermeak formatu digitalean aurkeztea.
- Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialaren eta Enpresen Saillapenerako Zerbitzuaren bilakaera teknologikoa.
- Kontratazio-txostenen kudeatzailearen (L-29) bilakaera teknologikoa.
- Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera (EBAO) eskaintza-iragarkiak XML formatuan bidaltzeko lanak hasi dira.


10. Sariak

Eusko Jaurlaritzak "Sinadura elektronikoaren erabileraren ibilbiderik onenaren saria" jaso zuen CATCert-en eskutik

Eusko Jaurlaritzak "Sinadura elektronikoaren erabileraren ibilbiderik onenaren saria" jaso zuen, II. CATCert sarietan. Egiaztagiri eta Sinadura Digitalen Kataluniako Agentziak antolatutako Herri-administrazioetan sinadura elektronikoa erabiltzeari buruzko jardunaldietan jaso zuen saria.

Kontratazio Publiko Elektronikoaren Ereduak "Administrazio Elektronikoko Jarduerarik Onenaren saria" jaso zuen

Expansión egunkariak, T-Systems enpresak eta Recoletos komunikazio-taldeak "Administrazio Elektronikoko Jarduerarik Onenaren saria" eman zioten Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publiko Elektronikoaren Ereduari, "Lurraldeko enpresa-lehiakortasunaren hobekuntzak" atalean; hain zuzen, Lizitazio Elektronikoa martxan jartzen duen Estatuko lehen erkidegoa izateagatik eman zioten saria.



Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak sustatzen du Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoen Eredua. Zuzendaritza Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren mende dago.

Proiektua Eusko Jaurlaritzaren Administrazio eta Gobernu Elektronikoen Plan Estrategikoaren (AGEPE) barruan dago. Plan estrategiko horren helburua Euskal E-Administrazioaren sustapena eta aurrerapena koordinatzea da; alde batetik, administrazioaren eta herritarren eta enpresen arteko harremanak eta emandako zerbitzuak hobetzeko eta, beste batetik, administrazioaren barne-eraginkortasuna hobetzeko. Administrazioa Eraberritzeko eta Administrazio Elektronikorako Idazkaritza Nagusiak sustatzen du plana; hain zuzen, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritzak,

Idazkaritza tekniko batek kudeatzen eta dinamizatzen du Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publiko Elektronikoen Eredua. Idazkaritza tekniko hori zenbait ardatzen inguruan antolatuta dago.

Kontratazio elektronikoko sistemako aplikazio guztiak Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak Administrazio eta Gobernu Elektronikoen Plan Estrategikoaren esparruan sustatutako E-Administrazioarako Plataforma Teknologiko (PLATEA) zerbitzuetan oinarritzen dira.

EJIE SA (Eusko Jaurlaritzaren informatika-zerbitzuetako enpresa) Eusko Jaurlaritzaren informatika- eta telekomunikazio-zerbitzuez arduratzen da, bai eta Administrazio eta Gobernu Elektronikoen Plan Estrategikoa garatzeaz ere. Horrenbestez, E-Kontratazio Planerako beharrezkoa den azpiegitura teknikoaren garapen teknologikoaren eta laguntzaren arduraduna da.

Izenpe SA Euskal Administrazioek sustatutako enpresa da, egiaztagiri digitaleko zerbitzuak emateko sortua. Haren sinadura elektronikoa onartuko egiaztagiriak eskaintzak sinatzeko, eskaintzak kodetzeko eta eskaintzak kontratazio elektronikoko sistemako zerbitzarietara iritsi dela egiaztatzen erabiltzen dira.

Eta 2007...

Ezaugarri teknologiko berriak.

Kontratazio elektronikoko 100 espedientetik gora eskainiko dira.

Elektronikoki soilik garatuko diren kontratazio-mota berriak.



Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio elektronikoko sistemari buruz posta bidez edozein kontsulta egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara:

Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco.
Ogasun eta Herri Administrazio Saila
Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza

Donostia - San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 86 75
kontratazioa@ej-gv.es

www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa

Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua